

**DONOSTIA OSPITALEKO ETA
MATIA FUNDAZIOKO
ASISTENTZIAREN ETIKAKO BATZORDEA**

BARNE-ARAUDIA

2002ko maiatzean onartua

AURKIBIDEA

SARRERA5

BARNE-ARAUDIA7

1. artikulua. Jardute-eremua.7

2. artikulua. Izena.7

3. artikulua. Egoitza eta helbidea.7

4. artikulua. Atxikipena eta mendekotasun organikoa.7

5. artikulua. Egitekoak.7

6. artikulua. Dotazioa eta bitartekoak.8

7. artikulua. Osaera.8

8. artikulua. Egitura10

9. artikulua. Batzordea.11

10. artikulua. Batzordeburua.12

11. artikulua. Batzordeburuordea.13

12. artikulua. Idazkaria.13

13. artikulua. Diruzaina.14

14. artikulua. Batzordeburua, batzordeburuordea, idazkaria eta diruzaina
 hautatzeko prozedura.14

15 artikulua. Azpibatzerdeak.14

16. artikulua. AEBri egindako kontsulten tramitazioa.15

ALDI BATERAKO XEDAPENA15

I. ERANSKINA17

II. ERANSKINA20

SARRERA

Asistentziaren etikako batzordeak gure herrialdean, beste herrialde askotan legez, arlo sanitarioan gatazta etikoak gertatzen diren kasuetan erabakiak hartzeko prozesua errazteko sortu ziren. Gataztak pazientearen erabakiaren eta profesional sanitarioen baloreen artean sortu daitezke, edo hauen eta pazientearen familiaren artean, edo pazientearen eta bere familiaren artean, edo horien guztien eta erakundearen artean, eta abar; hots, erlazio asistentzialean zerikusi duen edozeinen artean. Eta sarritan, gatazkaren konponbidea ez da posible izaten erlazioaren beraren barruan.

Batzorde hauetan sortzen den eztabaida etika zibil, anizkoitz, autonomo eta arrazional baten planteamenduetan oinarritzen da, konbentzionalismoz haratago. Etika zibil edo sekular bat da, pertsona guztiek beren kontzientzia-askatasunaren errespetu osorako eskubidea izanik, gizarte-erakundeek denok bete beharreko gutxieneko moral batzuk ezarri behar dituztelako. Dagoeneko gutxieneko moral horiek ezin dira ezarri moral erlijiosoan arabera; aitzitik, irizpideek sekularrak, zibilak edo arrazionalak izan behar dute. Etika anizkoitz bat da, ikuspegi eta jarrera desberdinak onartu eta bateratzen saiatzen delako, ongizate komunaren mesederako. Etika autonomo bat da, moralitatearen irizpidea gizakia bera baino ezin delako izan. Etika arrazionala da, eta ez arrazionalista, giza arrazionaltasuna irekia eta progresiboa izanik, bi memento dituelako: *a priori* bata, edo prinzipialista; eta *a posteriori*, bestea, edo kontsekuentzialista. Arrazoi etikoa bi alderdi horien artean garatzen da beti, bere asmoa konbentzionalismo moralez haratago joatea delarik.

Arrazoi horiengatik, gure Erkidegoan prozesu bat hasi zen, duela urte batzuk, bioetikan prestatzeko, eta etikako batzorde sustatzaileak eta etikako batzordeak sortzeko. Arantzazu Ospitalearen babesean sortu zen batzorde sustatzaile horietako bat.

Batzorde sustatzaile horren jarraipen gisa, Arantzazu eta Amarako ospitaleetako eta Matia Fundazioko AEB sortu zen, eta 1994ko abenduan hasi zen funtzionatzen; geroago, 1997ko ekainaren 24ko Osasun Saileko sailburuordearen Erabakiaren bidez (1997-07-18ko EHAA) akreditatu zen.

1996ko urtarrileko AEBko bilkuran, orain arte indarrean egon den barne-araudia onartu zen.

Barne araudi horretako aldi baterako xedapenean ondorengo ezarri zen: *"AEBren funtzionamenduko lehen urtea igarotakoan, barne-araudia aztertu eta aldatuko da, bere betebeharrak egokitzeke."*

Aldi horretan zehar edozein kidek bete gabeko beharren bat atzemanaz gero, Batzordeari aurkeztuko dio "dagokion proposamena eztabaidatu eta, hala badagokio, onartzeko".

Bere jardunean AEBk zenbait zailtasunekin topo egin du ondorengo arloetan:

- Jardute-eremua.
- Beren burua batzordekide izateko aurkezten duten pertsonen onarpena.
- Osaera (diziplinartekoa, aukerak).
- Eraginkortasunez funtzionatzeko ematen zaizkion bitartekoak.
- Inplikaturik dauden sektore guztietara iristeko era.
- Bere kideen eta bere eragin pean gelditzen diren zentroetako pertsonalaren prestakuntzarako lankidetzak.
- Bere barne-antolamendua, egiten zaizkion eskakizunei azkar erantzun ahal izateko.
- Batzordeetako kide izatea onartzen duten profesionalen konpromisoaren, gaitasunaren eta borondatearen koordinazioa.

Gauzak horrela, hausnarketako aldi baten ondoren, AEBk aztertu du oraingo barne-araudia aldatu eta osatzeko beharra, eta ondorengo testua proposatzen du BARNE-ARAUDI gisa.

BARNE-ARAUDIA

1. artikulua. Jardute-eremua.

1. AEBk Gipuzkoako Osasun-barrutian ondorengo zentroetan sortzen diren erlazio klinikoetako gatazka etikoen gainean jardungo du:

Donostia Ospitalea (*) eta
Matia Fundazioa

2. Hala ere, Gipuzkoako Osasun-barrutiko zentro edo eskualdeetan beste AEB batzuk sortzen ez diren bitartean, AEB honek, ahal duen neurrian, Gipuzkoako edozein zentrotako pertsonal sanitarioak eta erabiltzaileek egindako eskakizunei erantzungo die.

2. artikulua. Izena.

Aurreko artikuluan aipatutako zentroetako AEBk ondorengo izena du: Donostia Ospitaleko eta Matia Fundazioko AEB (hemendik aurrera AEB).

3. artikulua. Egoitza eta helbidea.

AEBren egoitza eta helbidea toki berean daude: Donostia Ospitaleko Amara Eraikineko Ateneoa.

4. artikulua. Atxikipena eta menpekotasun organikoa.

AEB organikoki Donostia Ospitaleko gerentziari atxikita dago, eta gerentzia horri jakinarazi behar zaizkio AEBren osaera eta hautetsien izenak.

5. artikulua. Egitekoak.

1. *AEBren egitekoak ondorengoak dira:*

- a) Osasunaren arloko profesionalen, erabiltzaileen eta instituzioen artean arazo etikoak sortzen diren egoeretan, erabaki klinikoak hartzeko prozesua aztertu, erraztu eta aholkuak ematea.

(*) 2001eko otsailaren 14ko Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren akordioaren bidez Donostia Ospitalea zerbitzu-erakundea sortu eta Arantzazu, Amara, Gipuzkoa eta Ospitaletegia zerbitzu-erakundeak ezabatu ziren (EHAA 2001-03-26)

- b) Instituzioari jarduera-protokoloak proposatzea, behin eta berriro edo noize-an behin, arazo etikoak direla-eta, sortzen diren egoerei erantzuteko.
- c) Zentroko zein eskualdeko profesionalak bioetikan prestatzen laguntzea.
- d) Urteko jarduera-txostena egitea eta zentroko edo osasun-barrutiko gerentziara eta Osasun Sailera bidaltzea.
- e) Bere kideen etengabeko prestakuntza.
- f) Beste AEB batzuen sorrera sustatu eta lagundu.
- g) Bioetikarekin zerikusia duten jarduerak garatzea, profesional sanitarioen, erabiltzaileen eta instituzioen artean zabalkundea emateko.
- h) Kideei informazioa ematea bioetikari buruz antolatzen diren eta haientzat interesgarriak izan daitezkeen jardunei buruz.

2. Ez dira, inola ere, AEBren egitekoak ondorengoak:

- i) Pertsonentzako edo instituzioarentzako ekinbide judizialak hasi edo babes-tea.
- j) Praktika profesionalari buruz edo paziente eta erabiltzaileen jokaerei buruz iritzia ematea.
- k) Bere aholkua eskatu duenaren erantzukizuna hartzea, hura ordezkatzuz.
- l) Lotesleak diren erabakiak hartzea.
- m) Justizia sozialari dagozkion erabakiak hartzea -paziente zehatz batekin zuzenki erlazionaturik dauden aspektuei buruz izan ezik, paziente horren gaia lantzen ari denean-, betiere, gaiaren azterketa soilik eginez, Batzordearen izaera aholku-emailea eta ez-loteslea gordeta.

6. artikulua. Dotazioa eta bitartekoak.

AEBk, bere autokudeaketa eta independentzia bermatzeko, behar diren edo komenigarriak diren bitarteko pertsonal eta materialez hornituta egon behar du.

7. artikulua. Osaera.

1. Gutxienez 13 kidek osatzen dute AEB:

- a) Jardute-eremuko zentroetako lau mediku, ahal dela espezialitate desberdinekoak.

- b) Jardute-eremuko zentroetako lau erizain, ahal dela arlo desberdinekoak.
- c) Jardute-eremuko zentroetako profesional sanitario bat, erizain edo medikua ez dena.
- d) Pazienteak eta erabiltzaileak atenditzeko zerbitzuetako pertsona bat.
- e) Bioetikan prestakuntza duen pertsona bat, Bioetikako Magister edo Aditu titulua duena.
- f) Erabiltzaileen ordezkari bat.
- g) Gizarteko ordezkari bat, pertsonen eskubideen defentsan esperientzia egiaztatua duena.

2. AEBko gehienezko kide-kopurua 25 izango da.

AEBko kideak 13 baino gehiago izanez gero, ahal den neurrian, artikuluko honetako 1. paragrafoko proportzioak gordeta egingo dira 14. kidearen eta 25. kidearen arteko izendapen guztiak, bi horiek barne.

- 3. Ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsonak, profesional sanitarioak izan zein ez izan, AEBko kide izan daitezke:**
 - a) Elkarriketarako irekita daudenak.
 - b) Gai hauetan interes frogatua dutenak.
 - c) 1. paragrafoan adierazitako taldekoak edo profesionalak direnak, ordezkari-tza txikiena duten talde edo profesionalei lehentasuna emanik.
 - d) Etika edo bioetikan prestakuntza dutenak.
 - e) AEBn lan egiteko konpromisoa har dezaketenak.
 - f) AEBko batzordeburuari idatzitako eskaeraren bidez, AEBko kide izateko borondatea adierazi dutenak.
- 4. AEBko partaidetza pertsonala da, eta kideek ez dute inongo erakundearen edo iritzi-taldearen ordezkaritzarik.**
- 5. Artikulu honen arabera kide izatea eskatu duten pertsonak AEBra sartuko dira, bete gabeko tokiak daudenean edo AEBko organo eskudunak erabakitzen duenean, eskaera aztertu ondoren.**
- 6. Zirkunstantziengatik komenigarria edo aholkatzekoa denean AEBko organo eskudunek kide berriak onartu ahal dituzte, nahiz eta artikuluko honetako 2. paragrafoko gehienezko kide-kopurua gainditu. Horretarako, gutxienez kideen bi herenak aldeko botoa eman behar du.**
- 7. AEBk beste aditu batzuen iritzia eskatu ahal du, eta erabaki pertsona horiek edo eztabaidatzen ari den kasurako beren lankidetzak garrantzitsuak izan daite-**

keen beste batzuek eztabaidetan parte hartzea; beti ere, AEBren funtzionamendu-arauak onartzen badituzte. Pertsona horiek hitza izango dute, baina ez botorik.

8. Sare sanitario publikoko eta hitzartutako sare pribatuko (hitzarmen-mota edozein izanik) edozein erakundetako zuzendaritzako kargua dutenak ezin dira AEBko kide izan.

9. AEBko kideak lau urterako izendatzen dira, eta kargua berritu daiteke.

10. AEBko kide izateari uztea.

10.1.- AEBko kide izateari uzteko arrazoiak ondorengoak dira:

- a) Izendapeneko epea bukatzea.
- b) AEBren jardute-eremuaren barruan jarduera profesionala uztea.
- c) AEBko batzordeburuari interesdunak idatziz eskatzea.
- d) Kanporatzea.

10.2.- AEBko gainerako kideek eska dezakete kideren bat kanporatzea ondorengo arrazoiak direla-eta:

- a) Elkarren segidako ohiko hiru deialditara ez bertaratzea edo urtearen barruan sei deialditara ez bertaratzea, arrazoirik eman gabe.
- b) AEBko kidearen betebeharrak edo funtzionamendu-arauak nabarmenki ez betetzea, eta bereziki Batzordearen eztabaidak ezagutaraztea.

10.3.- Batzordeburuak proposatu behar du kanporatzea, eta AEBko kideen bi herenak aldeko botoa eman behar du.

11. AEBko kideek ondorengo betebeharrak eta eskubideak dituzte:

- a) Bileretara joatea, hitza eta bozkatzeko eskubidea izanik.
- b) Bileretan eta lan-saioetan aktiboki parte hartzea.
- c) Batzordeburuari eskatzea bilera berezietarako deia egin dezan.
- d) Bileretan tratatutako gaien konfidentziasuna eta eztabaiden isilpekotasuna gordetzea.
- e) AEBko karguetarako edo organoetarako hautagai izatea.
- f) AEBko karguak hautatzeko bozketetan parte hartzea.

12. AEBko kideak arian-arian berrituko dira, Batzordearen funtzionamendua kalte-tu gabe. Beraz, kideen heren bat baino gehiago ezin da batera berritu.

8. artikulua. Osaera.

AEB ondorengo organoek osatzen dute:

- Batzordea
- Batzordeburua
- Batzordeburuordea
- Idazkaria
- Diruzaina
- Sor daitezkeen lan-taldeak
- Urgentziako azpibatzerdeak

9. artikulua. Batzordea.

1. AEBko kide guztiek osatzen dute, eta AEBko gobernu, administrazio eta ordezkarietako organo gorena da.

Batzordeko kideek ezin dute beste batengan delegatu ez eta beste bat ordezkari bileretan.

2. Batzordeko eskumenak dira beste organoek beretzat ez dituztenak; bereziki ondorengoak:

- a) Barne-araudia onartzea.
- b) Bere kideen artean AEBko batzordeburua, batzordeburuordea, diruzaina eta idazkaria hautatzea.
- c) AEBk egin behar dituen txosten, aholku eta protokoloak onartzea, barne-araudi hauetan adierazten diren kasuetan izan ezik.
- d) AEBren ardura den prestakuntza-programa onartzea, Batzordeko kideentzat eta Batzordez kanpoko pertsonentzat.
- e) AEBko kideak hautatzea.
- f) Urteko jarduera-txostena onartzea.
- g) AEBko aurrekontua eta urteko kontuak onartzea.
- h) Urteko bileren egutegia onartzea.
- i) Lan-taldeak eta azpibatzerdeak sortzea.
- j) Batzordeburua hautatzea, batzordeburua kargua utziz gero, batzordeburu berria hautatzeko prozesua burutzen ez den bitartean.

3. Batzordeak, presidenteak deituta, hilean behin, ohiko bilerak egingo ditu, abuztuan eta zirkunstantziengatik posible ez den hiletan izan ezik.
4. Bilera-deia eta gai-zerrenda idatziz bidali behar zaizkie kide guztiei, gutxienez 7 egun lehenago. Deian bilerarako data, tokia eta ordua adierazi behar dira.
5. AEBko Batzordeak erabakiak hartu ahal izateko, bileran gutxienez zortzi kidek egon behar dute.
6. Erabakiak aho batez hartu behar dira, eta adostasuna posible ez denean, bertaratuen gehingoz hartuko dira, barne-araudi honetan bestelako gehiengoak aurreikusten ez bada.
7. Hartutako erabakiaren kontra botoa eman duen edozein kidek boto partikularra eman dezake idatziz, 24 orduko epean, bere desadostasuna azaltzeko.
8. Batzordeak ezin du erabakirik hartu gai-zerrendan ez dauden gaiez, Batzordeko kide guztiak bertan egon eta bere onarpena ematen ez badute.
9. Urteko aurrekontuak aurreko urteko azken bileran onartuko dira, eta urteko kontuak eta urteko jarduera-txostena, hurrengo urteko lehen hiru hilabeteen barruan.
10. AEBko idazkariak, edo bera ez badago bilera hasieran bertaratuen artean izendatutako batek, Batzordeko bilerako akta egingo du.

Aktaren ziriborroa AEBko kideei bidaliko zaie, hurrengo bilkura-deiarekin batera, eta bertan onartuko da.
11. Batzordeko bileretako burua eta moderatzailea batzordeburua izango da. Bera ez dagonean batzordeburuordeak ordezkatzuko du, eta bietako inor ez dagonean, bilera hasieran bertaratuen artean gehiengoz izendatutako batek.
12. Batzordeak bilera bereziak egin ahal ditu, batzordeburuak erabakitzen duenean eta gutxienez bost kidek eskatzen dutenean. Bilera bereziak eta ohikoak berdin funtzionatzen dute.
13. Arrazoi urgenteengatik bilera berezia egiten denean deia ahoz egin ahal da, ahalik kiderik gehienak biltzen saiatuta. Deia egin eta 48 orduko epean egin behar da bilera. Bertan bileraren arrazoia ez diren gaiak ezin dira tratatu. Adostasuna lortzen ez bada, 13 kideren quoruma beharko da erabakiak hartu ahal izateko.
14. Bilera berezi urgentean tratatutakoa hurrengo ohiko bilerako gai-zerrendan sartuko da, batzorde kide guztiek ezagut dezaten.

10. artikulua. Batzordeburua.

1. Batzordeak batzordeburua izendatuko du, bi urterako, bere kideen bi hereneko gehiengoz. Kargua behin bakarrik luza daiteke.
2. Batzordeburua Osoko batzordeko ordezkari gorena da, eta barne-araudi honi eta aplikatzekoak diren arauei jarraituz, beste edozein kideren ahalmenak izateaz gain, Batzordea ordezkatzan du, Batzordeko eta AEBko beste organoen erabakien ondorioz egiten diren jardun eta kontratu guztietan.
3. Horiez gain, batzordeburuaren egitekoak dira:
 - a) Batzordeko bilera-deiak egitea, eta gai-zerrendak zehaztea.
 - b) Bileretako buru izatea eta bilerak zuzentzea.
 - c) Batzordeko bilerako aktak onartu ondoren, idazkariarekin batera sinatzea.
 - d) Batzordeko erabakiak betetzen direla zaintzea.
 - e) AEBren helburuak betetzen direla zaintzea.

11. artikulua. Batzordeburuordea.

1. Batzordeak batzordeburuordea hautatuko du, bi urterako, bere kideen bi hereneko gehiengoz. Kargua behin bakarrik luza daiteke.
2. Batzordeburuordeak batzordeburua ordezkatzan du, ez dagoenean edo gaixo dagoenean, baita kargua hutsik dagoenean ere.

12. artikulua. Idazkaria.

1. Batzordeak idazkaria hautatuko du, bi urterako, bere kideen bi hereneko gehiengoz. Kargua behin bakarrik luza daiteke.
2. Idazkariaren egitekoak ondorengoak dira:
 - a) Batzordeburuaren aginduz bilera-deiak egitea.
 - b) Aktak idaztea eta batzordeburuarekin batera sinatzea, Batzordeko bilerak onartu ondoren.
 - c) Ohiko postaz arduratzea.
 - d) Dokumentazio guztia gorde eta zaintzea.
 - e) Batzordeko kide guztiei dagokien informazio eta dokumentazioa bidaltzea.
 - f) Urteko txostena prestatzea, Batzordeko bilerak onar dezan.
 - g) Urgentziako azpibatzerdeetarako deia egitea.

13. artikulua. Diruzaina.

1. Batzordeak diruzain bat izendatu ahal izango du, egoki irizten badio, bi urtera-ko, bere kideen gehiengo soilaz. Kargua behin bakarrik luza daiteke, eta egitekoak Batzordeak ematen dizkionak izango dira.
2. Diruzainari ondorengo egitekoak eman dakizkioke:
 - a) AEBko funtsak bildu eta zaintzea.
 - b) AEBko kontu-liburuak eta kontabilitatea eramatea.
 - c) Batzordeburuarekin batera AEBko funtsak erabiltzea.
 - d) Urteko aurrekontuak eta kontuak Batzordeari aurkeztea, honek onar dezan.
 - e) Diru-sarrera eta gastuen balantzea aurkeztu eta sinatzea.

14. artikulua. Batzordeburua, batzordeburuordea, idazkaria eta diruzaina hautatzeko prozedura.

1. AEBko karguen hautaketa ondorengo prozeduraren arabera egingo da:
 - a) Jarduneko batzordeburuak hautagaiak aurkezteko 15 eguneko epea irekiko du, Batzordeko kide guztiei idatziz jakinarazita.
 - b) Hautagaiak aurkeztu ondoren, kide guztiei idatziz jakinaraziko zaizkie eta bilerarako deia egingo da:
 - Bileran, hautagaiek, nahi izanez gero, beren kandidatura defenda dezakete.
 - Ondoren Batzordeak karguak hautatuko ditu.
2. Behar beste botazio egingo dira, kasu bakoitzean lortu beharreko gehiengoak lortu arte.
3. Botoa postaz eman ahal da, AEBko idazkariari aurretiaz bidaliz, Batzordeak erabakitako baldintzak beteta.

15 artikulua. Azpibatzerdeak.

1. Bi urgentziatzko azpibatzerde daude, Batzordeak sortuta. Beren egiteko bakarra urgentzia duten kasu edo kontsultak erabakitzea da.
2. Azpibatzerde hauek autonomia dute, lan egiteko metodologia erabaki eta txostenak egiteko.

3. Deia egin ondoren, azpibatzerde hauek 48 ordu baino lehen bildu behar dute.
4. Azpibatzerde hauek egindako txostenak hurrengo ohiko bilerako gai-zerrendan sartuko dira, Batzerdeko kideek ezagut ditzaten.
5. Kontsulta bat urgentetzat hartuko da, kasuan ematen diren zirkunstantziak direla-eta, berehala tratatu behar denean.

16. artikulua. AEBri egindako kontsulten tramitazioa.

Erabiltzaileek, profesionalek eta instituzioak AEBri egindako kontsultak idazkariaren bidez tramitatuko dira. Kontsultak, kontsultaren arrazoia zehaztuta, idatziz egin behar dira.

ALDI BATEKO XEDAPENA

Barne-araudi hau AEBko Batzerdearen erabakiz berraztertu ahal da, erabakia kideen gehiengo soiluz hartuta, mementoko betebeharrerara egokitzeko.

AEBko edozein kidek bete gabeko beharren bat atzemanaz gero, Batzerdeari aurkeztuko dio dagokion proposamena eztabaidatu eta, hala badagokio, onartzeko.

I. ERANSKINA

ASISTENTZIAREN ETIKAKO BATZORDEAK SORTU ETA KREDITATZEARI BURUZKO OTSAILAREN 7KO 143/1995 DEKRETUKO ARAUAK

Barne-araudiak, beti, kontuan hartu beharko ditu AEBak sortu eta kreditatzeari buruzko 143/1995 Dekretuko oinarrizko hainbat gai:

A.- Zioen azalpena:

AEBak sortu ziren kontuan hartu zelako irizpideak emateko gai izango ziren organo batzuk sortu beharra zegoela, zeinek laguntza emango baitzieten profesionalei, elkarren aurka edo, besterik gabe, desberdinak diren baloreak daudenean osasunaren alorreko erabakiak hartzea zailtzen duenak.

Bilgune izan behar zuten organo hauek ondorengo ezaugarriak izan behar zituzten:

- Diziplinartekoak izan, hots, erabaki kliniko bat hartzean egon daitezkeen osasun, lege, etika eta gizarte mailako alderdietan argia emango dutenak.
- Aholku-emaileak izan, ez baita AEBen funtzioa salaketan edo erreklamazioen gainean iritzirik ematea edo peritazioa egitea, edo inplikaturik egon daitezkeen profesionalen gainean iritzirik ematea, ez eta ere jokaerak epaitzea edo zigorrak proposatzea.
- Bitartekari izan, pertsonen arteko gatazken gainean jardun beharra dagoelako eta protagonistei konpontzen lagundu, ahal dela adostasunez, planteatzen den alorrean erabil daitezkeen irizpideak erabiliz. Bere iritzia edo aholkuak ez dira lotesleak.

AEBek egitura tinkoa izan behar dute, ospea izan eta estamentu guztiek errespetatu ditzaizten.

B.- Artikuluak:

- 1.- AEB batzorde aholkulari eta diziplinartekoa da, erakunde sanitario eta zentro sanitario bateko (edo barruti bateko edo zentro batzuetako) profesionalen eta

erabiltzaileen zerbitzura dagoena. Asistentziaren ondorioz sortzen diren arazo etikoak aztertu eta aholkatzeko sortzen da eta azken helburua asistentzia bera hobetzea da.

- 2.- AEB baten jardute-eremua izan daiteke: zentro bat, zerbitzu edo establezimendu bat; osasun-barruti bat edo zenbait osasun-zentro, osasun barruti berekoak nahiz beste batekoak, baina ezaugarri edo antzeko arazoak dituztenak.
- 3.- AEBko osaera diziplinartekoa izango da eta osasunaren alorrean dauden lanbideen artean oreka gordeko da, gizarteko alderdi kualifikatu bat ere egongo da.

Gutxienez zazpi kide edukiko dituzte eta horien artean ondorengoak egongo dira:

Medikuak.

Erizaintzako pertsonala.

Bioetikan prestakuntza egiaztatua duen pertsona bat.

Gizarteko ordezkari bat, giza eskubideen defentsan esperientzia eta ospea duena.

Zentroko edo osasun-barrutiko zuzendaritzako pertsonala ezin da Batzordeko kide izan.

AEBak zentroko gerentearen edo osasun-barrutiko zuzendariaren menpe egongo dira organikoki, beren lana antolatzeke eta egitekoak burutzeke autonomia osoa edukiko duten arren.

AEBek aholkularien edo adituen laguntza eskatu ahal izango dute, beharrezkotzat jotzen dutenean.

- 4.- Borondatez aurkezten diren kideak Batzordeak izendatuko ditu, lau urterako, izendapena berritzeko aukera dagoela.

AEBek batzordeburua eta idazkaria hautatuko dituzte beren kideen artean.

- 5.- Asistentziaren etikako batzordeen egitekorik nagusienak ondorengoak dira:

- Barne-araudia egin eta onartzea.
- Parte-hartzaileen artean, hots, osasunaren alorreko profesionalen, erabiltzaileen eta instituzioen artean arazo etikoak sortzen diren egoeretan, erabaki klinikoak hartzeko prozesua aztertu, erraztu eta aholkuak ematea.
- Instituzioari jarduera-protokoloak proposatzea, behin eta berriro edo noizean behin gertatzen diren arazo etikoak sortzen diren egoerei erantzuteko.

- Zentroko zein eskualdeko profesionalak bioetikan prestatzen laguntzea.
- Urteko jarduera-txostena egitea eta zentroko edo osasun-barrutiko gerentziara eta Osasun Sailera bidaltzea.

6.- Barne-araudian deialdien eta bileren ohiko jardunbideaz gain, jardunbide berezi eta urgente bat jasoko da, aztertu behar diren izaera horretako kasuetarako.

Etikako Batzordea gutxienez urtean hirutan bildu beharko da ohiko deialdian.

Batzordeko kideen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak, ondorengo egitekoak izan ezik:

- Parte-hartzaileen artean, hots, osasunaren alorreko profesionalen, erabiltzaileen eta instituzioen artean arazo etikoak sortzen diren egoeretan, erabaki klinikoak hartzeko prozesua aztertu, erraztu eta aholkuak ematea.
- Instituzioari jarduera-protokoloak proposatzea, behin eta berriro edo noiz behin gertatzen diren arazo etikoak sortzen diren egoerei erantzuteko.

Horiek onartzeko gutxienez Batzordeko kideen bi herenen gehiengoa beharko da.

7.- Erabiltzaileek AEB erabiltzeko, pazienteak atenditzeko zerbitzuak edo egiteko horiek betetzen dituzten zerbitzuak erabili beharko dituzte.

Instituzioak eta profesionalek AEB erabiltzeko, idazkariarengana zuzenduko dira.

8.- AEBren txostenak edo gomendioak beti idatziz egingo dira eta kopia bat bidaliko zaio Batzordeak jardutea eskatu duenari.

Txostena edo gomendioa aho batez egiten ez bada, nahi duten kideek beren desadostasuna azaldu dezakete, boto partikularra idatziz arrazoituz.

II. ERANSKINA

Propioak zaizkion ezaugarriak gordeta, bere funtzionamendua bermatzeko, AEBk gutxienez ondorengo bitartekoak izan behar ditu:

- Materialak:

- Gutxienez 25 metro karratuko lokal bat.
- Altzariak:
 - Idazkariarentzako mahaia.
 - Bilera-mahaia.
 - Idazkariaren mahaiarentzako eta bilera-mahaiarentzako aulkiak.
 - Liburuentzako apalak.
 - Konfidentzialtasuna bermatzeko artxibategia.
 - Informatikako oinarrizko euskarria, Batzordeak sortutako informazioa eta behar duen informazioa erraz erabiltzeko.
 - Fax eta telefonoa.
 - Fotokopiagailua.

- Pertsonalak: dedikazio nahikoaz arituko direnak ABErentzako ondorengo administrazio-lanak egiten: Batzordeko eta azpibatzerdeetako bilera-deiak eta aktak, txostenak, memoriak, AEBko kideen, erabiltzaile/pazienteen, erakunde-en komunikazioak eta erlazioak, eta, oro har, AEBri dagokion administrazio-jardura guztia.

Edozein erakunde edo/eta zentro sanitario publiko edo hitzartutan lan egiten duten Batzordeko kideek ordu libreak izan behar dituzte lan-orduen barruan, beharrezkoa bada, AEBko egitekoak bete ahal izateko.

- Finantzarioak: Batzordeak onartutako gutxieneko aurrekontua betetzeko.
- Batzordeko bileretara joateko liberazioa.